

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**


2013/11/27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27/11/2013



Organoa edo batzordea: Osoko bilkura.
Bilera-mota: Ohikoa.
Eguna: 2013/11/27.
Ordua: Hasiera, 19:30.
Tokia: Legazpiko udaletxeke Batzar Aretoa.

Organo o comisión: Pleno.
Tipo de convocatoria: Ordinario.
Día: 27/11/2013.
Hora: Comienzo, 19:30.
Lugar: Salón de Plenos del Ayuntamiento de Legazpi.

Bertaratuak:

Kepa Urzelai Goitia, Bildu.
Sagrario Etxabe Lasa, Bildu.
Amaia Solanas Arzitimuiño, Bildu.
Lourdes Ugarte Garrido, Bildu.
Igor Urrate Ugarte, Bildu.
Aitor Uribeetxeberria Bidegain, Bildu.
Raquel Puente Iurtia, Bildu.
Javier Iraeta, EAJ.
Ane Urkiola Alustiza, EAJ
Aitor Madina Murua, EAJ.
Oscar Valbuena Pascual, PSE.
Roberto Alonso Yebra, PSE-EE.
Arantza Arizmendi, Hamaikabat.

Asistentes:

Kepa Urzelai Goitia, Bildu.
Sagrario Etxabe Lasa, Bildu.
Amaia Solanas Arzitimuiño, Bildu.
Lourdes Ugarte Garrido, Bildu.
Igor Urrate Ugarte, Bildu.
Aitor Uribeetxeberria Bidegain, Bildu.
Raquel Puente Iurtia, Bildu.
Javier Iraeta, PNV.
Ane Urkiola Alustiza, PNV
Aitor Madina Murua, PNV.
Oscar Valbuena Pascual, PSE-EE.
Roberto Alonso Yebra, PSE-EE.
Arantza Arizmendi, Hamaikabat.

Fernando Arakama Fernández, Kontuhartzailea
Iñaki Gastañares Sánchez, Idazkaria.

Fernando Arakama Fernández, Interventor.
Iñaki Gastañares Sánchez, Secretario.

Aztergaiak, esan-eginak eta erabakiak:

Orden del Día, intervenciones y acuerdos:

1. Bidezkoa bada, joan den 2013-10-30eko akta onartzea.

1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión de 30-10-2013.

Iradokizunik eta argibiderik gabe, akta aho batez onartu da.

No habiendo sugerencias o aclaraciones el acta es aprobada por unanimidad.

GIZARTE ZERBITZUAK:

SERVICIOS SOCIALES:

2. Bidezkoa bada, Eguneko zentroaren kontratua esleitzeari buruz Kontratazio mahaiak egin duen proposamena onartzea.

2. Aprobación, si procede, de la propuesta de la Mesa de Contratación sobre la adjudicación del contrato de Centro de Día.

Lourdes Ugarte, Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi-ordezkariek hartu du hitza eta Kontratazio mahaiak Eguneko zentroaren zerbitzua Akeru enpresari esleitzea proposatu duela jakinarazi du. Segidan, proposamen hori berretsiz batzordeak egin duen irizpena irakurri du.

Lourdes Ugarte, Concejala-Delegada de Servicios Sociales da lectura al dictamen de Comisión que propone ratificar la propuesta de la Mesa de Contratación por la que se propone adjudicar el servicio a la empresa Akeru.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2013/11/27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27/11/2013

Segidan, hainbat azalpen eman ditu gaiari buruz: zerbitzuaren ezaugarriak, erabiltzaileak, dagoen plaza-kopurua, zerbitzua eskainiko diren egunak eta ordutegia.

Lehiaketara aurkeztu diren enpresa desberdinek balorazio-irizpide desberdinetan lortu dituzten puntuak adierazi ditu. Azkenean, Akeru enpresak fakturatuko duen zerbitzuaren orduko prezioa izan da puntuazio hoberena lortzea ahalbidetu diona.

PSE-EE taldeko Roberto Alonsok bere taldeak esleipenaren alde bozkatuko duela esan du, baldintza-agiriak prestatu direnean PSE taldeak enpresa nahiz probintzia mailako lan-hitzarmenak aplikatzeko egin zuen proposamena baloratu egin delako. Enpresa subrogazioa emango denez, langileen baldintzak ez ditzatela okerrera egin zain dadila eskatu du. Azkenik, Aldundiak 2013-2016 epealdirako proposatu duen Mendekotasun planari buruz berriren bat ote dagoen galdetu du.

Lourdes Ugartek proposamenean zain daudela erantzun du. Laster iristea espero dute eta une hori iritsitakoan hala jakinaraziko dute haiek aztertzeko.

Alkate jaunak hartu du hitza eta jarraituko den bidea hori dela esan du, hau da, baldintza-agirietan lan-hitzarmenak edo enpresa-itunak bete daitezela eskatuko da, langileen lan-baldintzak bermatuta gera daitezen. Lan-baldintza egokiak izateak zerbitzuaren kalitatean du eragin zuzena eta datozen kontratuetan bide horri eutsiko diote. Subrogazioan lan-baldintzak murriztuko ez direla zainduko dute.

Lourdes Ugartek, azkenik, kontratua bi urterako esleituko dela eta beste bi urtez luzatu ahal izango dela adierazi du.

A continuación da unas explicaciones sobre las características del servicio, usuarios, plazas existentes, días de funcionamiento y horarios.

Expone también la puntuación obtenida por las empresas presentadas al concurso en los diferentes criterios de valoración y señala el precio/hora del servicio que facturará la empresa Akeru que ha resultado la que mayor puntuación ha obtenido en total.

Roberto Alonso por el PSE-EE anuncia el apoyo de su grupo a la adjudicación sobre todo porque se ha valorado en los Pliegos, como propuso el PSE, la aplicación de los convenios ya sean de empresa o provinciales. Pide que ya que va a haber una subrogación empresarial se esté atento a que las condiciones de los trabajadores no se perjudiquen. Por último pregunta si se sabe algo sobre el Plan de Dependencia 2013-2016 que ha planteado Diputación.

Lourdes Ugarte comenta que están esperando a las propuestas, que espera lleguen en breve, y en ese momento las harán saber para analizarlo.

El Sr. Alcalde comenta que efectivamente la vía a seguir será la de valorar en los Pliegos el cumplimiento de convenios o pactos de empresa de manera que se garanticen las condiciones laborales de los trabajadores. Unas buenas condiciones garantizan a su vez una mejor calidad del servicio y en ese sentido seguirán por ese camino en próximos contratos. Responde que velarán porque en la subrogación no haya merma de las condiciones de trabajo.

Lourdes Ugarte aclara que el contrato se adjudica por dos años con posibilidad de prórroga por otros dos.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**


2013/11/27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27/11/2013



Parte hartze horien ondoren, aipatu zerbitzua Akeru enpresari esleitzeko proposamena erabakitzeke botoetara jo eta aho batez onartu da.

3. Bidezkoa bada, azaroaren 25aren gaineko Adierazpena onartzea.

Lourdes Ugartek hartu du hitza eta Gizarte Zerbitzuen batzordeak Urola Garaia mankomunitateko Berdintasun sailak egin duen Adierazpen instituzionala onartzea proposatzen diola Osoko bilkurari zehaztu du.

Segidan, aipatu Adierazpena irakurri du eta akta honi erantsi zaio.

Irakurri ondoren, adierazpena erabakitzeke botoetara jo eta aho batez onartu da.

HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK:

4. Bidezkoa bada, Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren 2 zenbakidun aldaketaren Testu Bateratua onartzea.

Alkate jaunak hartu du hitza eta Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren 2 zenbakidun aldaketaren Testu Bateratua onartzea proposatzen duen irizpena irakurri du.

Oscar Valbuenak hartu du hitza eta bere taldeak Testu Bateratuaren alde bozkatzeko duela esan du. Testuaren aldaketak hobekuntzak ekarriko dituela ulertzen dute; horrela, Argindegi baserriko lurretan depositua egiteak ur-hornidura hobetzea ekarriko du eta Urtegi alde eremuari itenbidea emango dio. Gainera, baserrien kontu gatazkatsua kanpoan geratu denez, aldaketaren alde daude.

Alkate jaunak depositua kokatzeko den lursailak erosteko negoziazioa oso aurreratuta dagoela adierazi du eta akordio hori urtarilaren hasieran ixtea espero du. Hori lortuta, helburua

Tras estas intervenciones es sometida a votación la propuesta de adjudicación a Akeru, siendo aprobada por unanimidad.

3. Aprobación, si procede, de la Declaración sobre el 25 de noviembre.

Lourdes Ugarte comenta cómo la Comisión de Servicios Sociales propone al Pleno del Ayuntamiento que apruebe la Declaración Institucional preparada por el Area de Igualdad de Urola Garaia.

A continuación da lectura a la citada Declaración que queda incorporada como Anexo I de esta acta.

Tras la lectura se somete a votación la Declaración siendo aprobada por unanimidad.

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:

4. Aprobación, si procede, del Texto Refundido de la modificación nº 2 del Plan General de Ordenación Urbana.

El Sr. Alcalde da lectura al dictamen de la Comisión de Urbanismo que propone la aprobación del Texto Refundido de la 2ª modificación del Plan General de Ordenación Urbana.

Oscar Valbuena anuncia el voto favorable de su grupo al Texto Refundido. Comenta las modificaciones que este Texto supone como son la ejecución del depósito en terrenos de Argindegi que mejorará el abastecimiento a zonas del municipio, así como la solución al ámbito de Urtegi alde. Además como ha quedado fuera el asunto polémico de los caseríos, están a favor de la modificación.

El Sr. Alcalde comenta que la negociación para la adquisición de los terrenos en que se ubicará el depósito se encuentran

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2013/11/27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27/11/2013

depositu hori datorren urtean eraikitzea da eta, modu horretan, 450 metrotik gorako kota batean dauden etxeetara ura behar bezala hornituko dela bermatuko da, ura presio handiagoan iritsiko baita.

Irizpena erabakitzeke botoetara jo ondoren, aho batez onartu da.

5. Bidezkoa bada, Agirre-Etxeberri etxearen erabilerei buruz joan den 2009-10-28an hartu zen erabakia aldatzeko proposamena onartzea.

Alkate jaunak hartu du hitza eta joan den 2012ko urtean burutu zen parte hartze prozesuaren ondoren, presazko bi ondorio atera zirela ekarri du gogora: alde batetik, Musika eskolak duen arazoari irtenbidea eman behar zaiola eta, bestetik, Agirre-Etxeberri etxeari erabilera bat eman behar zaiola.

Aukera desberdinak aztertu ondoren, egin den aurreproiektuan jasotakoaren arabera, gobernu taldeak aipatu eraikinari ondoko erabilera ematea proposatu du: sotoa, bigarren solairua eta hirugarren solairua Musika eskolak erabiliko lituzke (eta espazioen banaketa nolakoa izan daitekeen azaldu du); lehenengo solairuan taberna edo kafetegia koka daiteke eta erabilera anitzeko bi areto ekintza eta ekitaldi desberdinetarako.

Kanpoaldean eszenatoki bat jartzea aurreikusi da eta altzari mota desberdinak, horrela eskatu baitzen parte hartze prozesuan. Dena den, hau aurreproiektua dela adierazi du. Ondoren, proiektua egitea lehiaketara aterako da eta lehiatzaileek aurkez ditzaketen ideiak baloratuko dira. Garbi utzi nahi du, halaber, eraikina ez dela Musika eskolaren erabileraerako bakarrik. Erabilera hori hitzarmen baten bidez arautuko da eta Udalak egun zehatz batean edo ekintza edo ekitaldiren baterako eraikina erabili behar baldin badu

avanzadas y espera poder cerrar el acuerdo a primeros de enero. Sería intención construir el depósito el año que viene, y de esa forma se mejorará el abastecimiento de las casas en cota superior a 450 m., dado que llegará el agua con mayor presión.

Sometido el dictamen a votación es aprobado por unanimidad.

5. Aprobación, si procede, de la modificación del acuerdo de 28-10-2009 sobre los usos de la villa Agirre-Etxeberri.

El Sr. Alcalde expone que como consecuencia del proceso participativo llevado a cabo en el año 2012 se obtuvieron dos conclusiones urgentes: una, dar salida al problema de la Musika Eskola y dos, darle una utilización a la villa Agirre-Etxeberri.

Tras analizar las alternativas, como equipo de gobierno se propone dotar al edificio de los usos siguientes conforme al anteproyecto que se ha elaborado: el sótano, la 2ª planta y la 3ª planta para el uso de la Musika Eskola (y anticipa lo que podría ser la distribución de los espacios); y la 1ª planta acogería una taberna o cafetería y dos salas polivalentes para diversos actos y actividades.

También comenta que en el exterior iría un escenario y diferente tipo de mobiliario, como así se pidió en el proceso de participación, y señala que esto no es más que un anteproyecto. Después se licitará la confección del proyecto y se valorará las ideas que puedan aportar los concursantes. También quiere dejar claro que el edificio no será exclusivamente para la Musika Eskola sino que se regulará su uso a través de un convenio para que si el Ayuntamiento necesitara el edificio para algún día

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2013/11/27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27/11/2013



horretarako arazorik ez izatea aurreikusiko da.

Javier Iraetak hartu du hitza eta EAJ taldeak Musika Eskola etxe horretan egokitzea begi onez ikusten duela esan du, aurreko legealdian ikusi zenaren arabera premia larria duelako. Bestetik, 2009ko erabakia aldatzearen alde daude, gaur egun orduan erabakitakoak ez baitu zentzurik, Lenbur fundazioaren egoera ona ez delako eta Legazpi Bai ere desagertu egin delako. Aurreko erabakian eraikina ekintza zibiletarako erabiltzea ere aurreikusita zegoela esan du eta etxean leku bat izatea errebindikatzen dute eraikina bera jasotako sustrai eta ondare historiko, ekonomiko eta kulturalarekin lotzeko. Oro har, heziketa zentroa izango den horretan ostalaritzako erabilera bat baimentzea ez dute garbi ikusten eta erabileren gaineko hitzarmenaren 4. Klausularekin zer gertatuko den galdetu du.

Oscar Valbuenak hartu du hitza eta urriko batzordean Musika eskola etxe horretan kokatzeko asmoa azaldu zenean, eta 2009ko akordioa hor dagoela eta prozesu judizialak egon direla ikusita, gaia argitzeko helburuarekin, txosten juridiko bat, intsonorizazioaren gaia zehaztuko zuen txosten tekniko eta balorazio ekonomiko eskatu zuten. Azaroko batzordean aurreproiektua azaldu zen baina ez zen intsonorizazioaren gaia zehaztu eta ez zen kostu ekonomikoa azaldu. Une horretan, lehenengo solairuan taberna jartzeko aukera azaldu zen. Ondo iruditzen zaie Musika eskolarekin etxeari eman nahi zaion erabilerarekin eta, hori ikusita, lehenengo solairuari eman beharreko erabilerak eta lorategien diseinua erabakitzeko parte hartze prozesu bat irekitzea proposatu zuten. Bere taldea abstenitu egingo dela jakinarazi du, ez zaielako kostu ekonomikoa zehaztu eta ez delako intsonorizazioaren gaia azaldu. Bestetik, parte hartze prozesua martxan jartzeko egin duten proposamenak ere ez du erantzunik jaso. Prozesu hori joan den 2012an egin zenaren bigarren fasea izango

determinado o para algún acto o festividad concreta lo pudiera utilizar.

Javier Iraeta por el PNV comenta que a su grupo le parece correcto el destino para la Musika Eskola, dada su necesidad evidente ya planteada en la legislatura anterior y también que se modifique el acuerdo de 2009 porque a día de hoy carece de sentido dada la situación de Lenbur y que Legazpi Bai no existe ya. El uso para actos civiles ya se preveía en el acuerdo anterior y señala que reivindican un lugar en la villa para el entronque de la casa con las raíces y el patrimonio histórico, económico y cultural heredado, como se señala en el convenio. Manifiesta el desacuerdo de su grupo con el posible uso hostelero en lo que va a ser fundamentalmente un centro educativo y pregunta qué va a pasar con la cláusula 4ª del convenio sobre la que, en definitiva, descansan los usos.

Oscar Valbuena por el PSE comenta que tras la Comisión de octubre en la que se expuso la idea de ubicar la Musika Eskola en la villa y para clarificar el tema dado el acuerdo existente de 2009 y los procesos judiciales habidos, pidieron un informe jurídico, uno técnico que especificara el tema de la insonorización, y una valoración económica. En la comisión de noviembre se expuso un anteproyecto pero no se concretó el tema de la insonorización ni se detalló el coste económico. También se sacó a colación, en ese momento, el tema del bar en la planta primera. Por ello y partiendo de la base de que les parece correcto el uso para la Musika Eskola, propusieron abrir un proceso de participación para determinar o clarificar los usos de la planta 1ª y también el diseño de los jardines. Anuncia la abstención de su grupo ante lo que considera falta de información por no haberse detallado el coste económico y el tema de la insonorización y por no haberles contestado a su propuesta del proceso de

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2013/11/27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27/11/2013

litzateke eta gogora ekarri du, gainera, parte hartze prozesu hartan oposizioko zinegotziei ez zutela parte hartu behar esan zitzaizela.

Hamaikabat taldeko Arantza Arizmendik hartu du hitza eta proposatu diren erabilerekin ados daudela esan du baina aurreproiektuarekin batera kalkulu ekonomikoa aurkeztea beharrezkoa zela ulertzen dute; beraz, bere taldea abstenitu egingo dela esan du.

Alkate jaunak kalkulu ekonomikoko hori behin betiko proiektuak finkatuko duela erantzun du. Gogora ekarri du eremu horretan burututako hirigintza jarduketatik diru bat lortu dela eta diru hori bertan inbertituko zela esan zen baina zenbat izango den proiektuak finkatuko du. Joan den 2012ko parte hartze prozesuari dagokionez, gogora ekarri du oposizioko zinegotzietatik ez zutela parte hartu baina gobernu taldekoek ere ez eta erabaki hori horrela hartu zen emaitza ez baldintzatzeko. Ezer egin ez dela esandakoari dagokionez, aurreko legegaldian beste parte hartze prozesu bat burutu zela esan du; bestetik, eraikinaren jabetza 2012an lortu zen eta jabetza izan baino lehen erabilerak zehaztea ez dela zentzuzkoa esan du. Oinordetzan hartutakoa errespetatzeari dagokionez, Ondarearen Plan Bereziak eraikinaren eta ingurunearen ezaugarriak gordetzea bultzatzen du eta Udalak erabiliko duen museo antzeko bat izango da. Bertan taberna edo kafetegia jartzearena parte hartze prozesuan atera zen kontua da eta ekintzen osagarria izan daitekeela eta espazioa sendotu egingo lukeela uste du. Proposatzen diren erabilerak sinatutako hitzarmenaren barruan egongo liritekeela pentsatzen du.

Javier Iraetak erabilerak zehaztea eta eraikinaren jabetza izatea bi gauza desberdinak direla esan du. Bere taldeak jartzen duen eragozpen handiena ostalaritzako erabilerarena da, ez baitute egoki ikusten horrelako erabilera bat oro har heziketa-zentro

participación. Un proceso, indica, que sería una segunda fase del llevado a cabo en el 2012 al que, por cierto a los concejales de la oposición se les dijo que no intervinieran.

Arantza Arizmendi por Hamaikabat señala que en cuanto a los usos que se proponen están de acuerdo pero hubiera sido necesario junto con el anteproyecto presentar una estimación económica, por ello anuncia la abstención de su grupo.

El Sr. Alcalde responde que la estimación económica la fijará el proyecto definitivo. Señala que de la actuación urbanística en esa área se obtuvo un dinero que, desde un principio, se dijo que se invertiría ahí, pero cuánto ha de ser lo fijará el proyecto. En cuanto al proceso del 2012 comenta que no participaron ni los concejales de la oposición ni los del gobierno, pues así se pensó para que no se condicionara el resultado. Ante la crítica de que no se ha hecho nada, comenta que en la legislatura anterior se hizo otro proceso y que la propiedad del edificio se ha obtenido en el 2012 y piensa que no se debían establecer los usos hasta no tener la propiedad. En cuanto al respeto a lo heredado señala que el Plan Especial del Patrimonio aboga por mantener las características del edificio y del entorno, que quedará prácticamente como un museo pero para uso del Ayuntamiento. En cuanto a la taberna o cafetería recuerda que surgió en el proceso de participación y considera que serviría de complemento a las actividades y reforzaría el espacio. Considera que los usos que se proponen estarían dentro del convenio suscrito.

Javier Iraeta comenta que la definición de los usos no tiene nada que ver con que se tenga o no la propiedad. Reitera que la principal objeción de su grupo se refiere al uso hostelero que no lo ven compatible con, en definitiva, un centro educativo. El museo que se proponía en el acuerdo de

UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA


2013/11/27



LEGAZPIKO
UDALA

ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL

27/11/2013



bat izango den lekuan. 2009ko akordioan proposatu zen museoa ez zen Patricio Etxeberria nagusiarena bakarrik, langile guztiena eta herriaren memoriarena ere izango litzateke. Bukatzeko, zalantza du erabileraren horiek hitzarmenaren 4. klausula errespetatzen duten, klausulan irakur daitekeenez, emango den erabileraren udal mailako helburuetarako bakarrik izango baita.

Oscar Valbuenak hartu du hitza eta 2012an egin zen prozesuaren zenbait ondorio zehaztu ditu. Berriro dio, gaiari bukaera emateko, lehenengo solairuko erabilerak finkatuko dituen prozesua bideratzea gauza ona izango litzatekeela. Egia da prozesuan ez zutela zinegotziek parte hartu baina gobernu taldeak eta oposizioko zinegotziek ez zutela informazio bera jaso esan du. Azkenik, zehatz-mehatz ez bada ere, insonorizazioaren eta kalkuluen ekonomikoaren ildo orokorrak eman zitezkeela uste du.

Alkate jaunak kalkuluen ekonomikoari dagokionez, gehienezko muga milioi bat euro izango direla esan du baina 300 edo 500 € gastatuko diren behin betiko proiektuak finkatuko du. 2012ko parte hartze prozesua bideratu zuen enpresarekin izan ziren bilerak bilera teknikoak izaten ziren eta prozesua nola zihoan azaltzeko ziren. Orain beste parte hartze prozesu bat eskatzea, joan den 2009an eraikinaren erabilerak ezarri zituen mozioa urgentziaz eta beste inorekin kontrastatu gabe onartu zela kontuan hartuta, ez zaiola bidezkoa iruditzen esan du. Defendatu egiten du taberna edo kafetegiaren erabileraren, eraikinari eta zonaldeari balio erantsia eskainiko diolako. Joan den 2009ko mozioan 3. solairurako proposatu ziren erabilerak orain lehenengo solairurako proposatzen diren berberak dira eta, orduan, parte hartze prozesu berri bat egiteko beharra non dagoen galdetu du.

Oscar Valbuenak parte hartze prozesua gobernuan dagoenak deitu behar duela esan

2009 no sólo era por Patricio Etxeberria sino también por los trabajadores y por la memoria del pueblo en definitiva. Para finalizar manifiesta sus dudas de que estos usos que ahora se proponen respeten la cláusula 4ª del convenio cuando especifica que debe destinarse a finalidades "única y exclusivamente municipales".

Oscar Valbuena aclara algunas conclusiones del proceso que se celebró en el 2012 y reitera que, para finalizar este asunto, sería bueno llevar a cabo una nueva fase de aquel proceso que fijara los usos para la 1ª planta. Es cierto que no participaron concejales en el proceso pero el grado de información que tuvo el equipo de gobierno y los concejales de la oposición no fue el mismo. Por último considera que si no al nivel de detalle, si hubiera sido posible informar sobre las líneas generales de la insonorización necesaria y sobre la estimación económica.

El Sr. Alcalde responde que la estimación económica como tope será alrededor del millón de euros, pero si se gastarán 300 o 500 lo fijará el proyecto definitivo. Aclara que las reuniones con la empresa que dirigió el proceso del 2012 eran reuniones técnicas en las que la empresa exponía cómo iba el proceso. Recrimina que ahora se pida otro proceso de participación cuando en el 2009 se aprobó una moción por urgencia que estableció los usos para el edificio sin haberlo contrastado absolutamente con nadie. Defiende el uso de taberna o cafetería porque le daría un valor añadido al edificio y a la zona. Comenta que los usos que se plantearon en la moción del 2009 para la 3ª planta son los que ahora se plantean para la 1ª por tanto se pregunta dónde está la necesidad de un nuevo proceso de participación.

Oscar Valbuena alara que el proceso de participación debe convocarlo quien gobierna y por eso le correspondía al

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2013/11/27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27/11/2013

du eta, beraz, ANV taldearen aurreko gobernuari zegokion hori egitea eta ez zuen egin.

Javier Iraetak joan den 2009an onartu zen mozioa legala zela adierazi du eta horrela egiaztatu dute eman diren epaiak. Orain eraikinen erabileren gainean eztabaidatzen hasi bagara, bere garaian hitzarmen bat sinatu zelako izan da eta horrek diru-gastu bat ekarri zion Udalari. Ezker abertzaleak proposatzen zuena desjabetzea zen eta horrek bai ekarriko zituela epaiketak.

Aitor Madinak hartu du hitza eta eskerrak eman nahi dizkio Korporazioari, hainbeste urteren ondoren Musika eskolari irtenbidea emateko ados daudelako, kontuan izanda gainera eskolak eskaintzen duen funtzio soziala. Hau lehenengo urratsa da eta gero zehaztu egin beharko da. Eskerrak eman nahi dizkie jarduerak sortu dituen eragozpenak jasan dituen bizilagunei eta gaian oso inplikaturik dagoenez ez duela bozketan parte hartuko esan du.

Alkate jaunak kontua ez dela Musika eskolari bakarrik irtenbidea ematea esan du; helburua eraikinari berari irtenbidea ematea da eta 2009ko mozioa legala izango zen baina ez etikoa.

Agirre-Etxeberri etxearen erabilerak aldatzeko proposamena botaziora eraman ondoren, Bilduren aldeko 7 botorekin eta EAJ, PSE-EE eta Hamaikabat taldeen 5 abstentziorekin onartu da.

LANGILEAK:

6. Bidezkoa bada, 2014rako lan egutegiak onartzea.

Alkate jaunak 2014rako lan egutegiak onartzea proposatzen duen batzordearen irizpenaren

gobierno anterior de ANV convocarlo y no lo hizo.

Javier Iraeta quiere dejar claro que la moción aprobada en el 2009 era perfectamente legal como lo han demostrado las sentencias que ha habido. Y añade que si se discute ahora de los usos del edificio es porque se firmó un convenio que ha supuesto una cantidad de dinero para el Ayuntamiento. Lo que proponía la izquierda abertzale era expropiar y eso sí que hubiera traído juicios.

Aitor Madina solicita el uso de la palabra para decir que quiere agradecer a la Corporación que todos estén de acuerdo en dar una salida a Musika Eskola después de tantos años y teniendo en cuenta la función social que desempeña. Considera que este es un primer paso que después habrá que concretar. Agradece a los vecinos que han sufrido las molestias de la actividad y anuncia que, por ser parte implicada no participará en la votación.

El Sr. Alcalde termina comentando que se trata de dar una salida no sólo a Musika Eskola sino al edificio en sí y considera que la moción del 2009 sería legal pero no ética.

Se somete a votación la propuesta de modificación de los usos de la Villa Agirre-Etxeberri, siendo aprobado el dictamen de Comisión por 7 votos a favor de Bildu y 5 abstenciones de PNV, PSE-EE y Hamaikabat.

PERSONAL:

6. Aprobación, si procede, de los calendarios laborales para 2014.

El Sr. Alcalde da cuenta del dictamen de Comisión que propone la aprobación de los calendarios laborales para 2014. Señala

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**


2013/11/27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27/11/2013



berri eman du. Bi alegazio onartu dira eta beste bat atzera bota da. Esate baterako iazko lan egutegi bera da.

Proposamena erabakitzeke botoetara jo ondoren, aho batez onartu da.

ALKATETZA:

7. Luzatu diren dekretuen berri ematea.

Azkeneko ohiko bilkutatik hona luzatu diren dekretuen berri eman da.

8. Eskariak eta galderak.

Javier Iraetak hartu du hitza eta Zero Zabor taldeak gaikako bilketaren datuak onak direlako prentsa-ohar bat kaleratu duela esan du legazpiarrak zorionduz. Datu horiek zein datu diren galdetu du, oposizioak ez baititu inongo daturik jaso.

Alkate jaunak esku artean ditugun datuak Sasietak emandakoak direla erantzun du eta datu horiek Urretxuko baskulan azaroaren lehenengo hamabostaldian pisatutako organikoarenak dira. Datu horiek eskuratu ziren eta PSE taldeari bidali zitzaizkion eskatuta zitueldako. Zero Zabor taldeak ez ditu gobernu taldeak emandako daturik eta alderdi politikoak izango dira datu horiek jasoko dituzten lehenak.

Oscar Valbuenak organikoaren bilketaren gainean jaso dituen datuak adierazi ditu. Datu positiboak direla esan du eta, esan zenaren kontra, bosgarren edukiontzia ongi funtzionatzen duela egiaztatzen dute. Horren aurrean bi kontu jartzen ditu mahai gainean: ze arrazoi dago bi bilketa-sistema mantentzeko? eta noiz bilduko da osatu behar zela agindu zen Hondakin-mahaia edo jarraipen batzordea, informazioa izango duten lehenak zinegotziak izan daitezten?

que se admitieron dos alegaciones y se rechazó otra que es prácticamente el mismo calendario que el año pasado.

Sometida a votación la propuesta es aprobada por unanimidad.

ALCALDIA:

7. Dar cuenta de los decretos dictados.

Se da cuenta de los decretos dictados desde la última sesión ordinaria.

8. Ruegos y preguntas.

Javier Iraeta, ante la nota de prensa emitida por Zero Zabor por la que felicitan a los legazpiarras por los buenos datos de la recogida selectiva, pregunta qué datos son esos ya que la oposición no cuenta con ningún dato.

El Sr. Alcalde responde que los datos de que se dispone son los que han manifestado desde Sasieta correspondientes a las pesadas del orgánico de la primera quincena de noviembre que se hacen en la báscula de Urretxu. Esos datos se le trasladaron al PSE ya que los solicitó. Zero Zabor no tiene datos suministrados por el equipo de gobierno y serán los grupos políticos quienes primero dispongan de ellos.

Oscar Valbuena indica los datos de recogida orgánica que se le han facilitado, que califica de positivos y, a diferencia de lo que se dijo en el pasado, demuestran que el quinto contenedor funciona. Ante eso plantea dos cuestiones: qué sentido tiene mantener un sistema con dos tipos de recogida, y para cuándo se va a convocar la Mesa de Residuos o Seguimiento que se prometió, para que sean los concejales los primeros que dispongan de la información.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2013/11/27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27/11/2013

Alkate jaunak herritarrak ez ditzatela nahastu eskatu die. Ez ditzatela nahastu batzordeak edo Udalaren bilera teknikoak ondoren osatuko den Hondakin-mahaiarekin. Mahai hori azaroko behin betiko datuak esku artean ditugunean deituko da eta alderdi guztiak izango dira gonbidatuak. Orduan baloratuko dira gauzak eta sistema bera ere baloratuko da; bestetik, poltsak lurrean uzten dituzten herritarrekin zer egingo den ere pentsatu beharko da. Sasieta arabera, lurrean utzitako 4 poltsetatik 3tan dena nahastuta dago. Oposizioko taldeei horren gainean zer esaten duten argi dezatela eta jarrera horiek deitoratu ditzatela eskatu die.

Javier Iraetak egingo diren hurrengo parte hartze prozesuetan ez daitezela parte hartzeko murrizketarik egon eta denek parte hartzeko aukera eskain dadila eskatu du.

Alkate jaunak baloratuko dela erantzun du baina kontu hori ez dagoela euren esku esan du, prozesuak kudeatzen dituzten enpresak baitira hori erabakitzen dutenak. Inbertsioen gaineko prozesuan, adibidez, edonork har dezakeen parte.

Oscar Valbuenak deituak izango direnean joan egingo direla esan du. Bestetik, informazioa eskatu dute eta horregatik ez du uste herritarrak nahasten ari direnik.

Alkate jaunak Hondakinen mahai deitu aurretik poltsak lurrean uzten dituzten herritarrei horrelakorik egin ez dezatela eska diezaietela esan du.

Oscar Valbuenak bere taldeak behin baino gehiago esan du ez dagoela desobediencia zibilaren alde eta horrela adierazi zuen Garapen Iraunkorreko batzordean.

Ane Urkiolak Alkateak esandakoa zehaztu nahi duela esan du. Jendeak komentatzen duenez, 5. edukiontzia ondo funtzionatzen badu eta birziklatzearen aldeko apustua baldin badago,

El Sr. Alcalde pide que no se enrede a la ciudadanía, que no se confunda lo que son comisiones o reuniones técnicas del Ayuntamiento con lo que es la Mesa de Residuos, que se convocará y se invitará a los partidos, cuando se disponga de los datos definitivos del mes de noviembre. Entonces se valorarán las cosas y se valorará el sistema y habrá que pensar también qué hacer con esas personas que dejan las bolsas en el suelo que, además, según Sasieta de cada 4 bolsas, 3 tiene todo mezclado. Pide a los partidos de la oposición que se pronuncien ante esos hechos y deploren esas actitudes.

Javier Iraeta hace el ruego de que en los siguientes procesos participativos que se convoquen no haya restricciones a la participación de ningún tipo.

El Sr. Alcalde responde que se valorará pero que no suele depender de ellos sino de las empresas que gestionan los procesos. Así por ejemplo en el tema de inversiones cualquiera pudo participar.

Oscar Valbuena anuncia que acudirán a la Mesa cuando sean convocados y pide al Alcalde que no acuse de enredar por el hecho de pedir información.

El Sr. Alcalde le señala que antes de convocarse la Mesa de Residuos podría pedir públicamente a los ciudadanos que dejan las bolsas en el suelo que no cometan esas acciones incorrectas.

Oscar Valbuena replica que su grupo, lo ha dicho repetidas veces, no está por la desobediencia civil, y así lo manifestó hace ya dos meses en la Comisión de Desarrollo Sostenible.

Ane Urkiola quiere hacer una puntualización a lo dicho por el Sr. Alcalde. Comenta que lo que la gente se está dando cuenta es que si el 5º contenedor funciona bien y si la apuesta era el reciclaje, por qué

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**


2013/11/27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27/11/2013



zergatik ez den 5. edukiontzia aldea apustua egin. Eta jendeak ere dioenez, esekileku edo kako asko jarri dira geratzen den errefusa jasotzeko. Gauzak horrela, Alkateari ez ditzala hitz erdikako salaketak egin eskatu dio. Oso ondo dakite birziklatzearen alde daudela, era guztietara, eta ez dituzte gizalegegabeko jarrerak bultzatzen. Azken finean, birziklatzearen eta 5. edukiontzia aldea daude eta kakoen aurka.

Alkate jaunak egin beharreko balorazioak bukaeran egingo dituela esan du, bilketaren datuak eta kostuak ezagutzen direnean.

Igor Urratek hartu du hitza eta zabor-poltsak lurrean uztea, hondakinak nahastuta ez izan arren, gizalegegabekoa izango litzatekeela esan du eta, horrezaz gain, eredu txarra ematen zaie adin txikikoei. Eta bestetik, gainkostu bat suposatzen du horiek jasotzea. Politikariek eredu ona eman beharko luketela uste du eta ez horrelako jarrerak bultzatu. Denak birziklatzearen alde daudela eta borondate ona dagoela dirudenez, posible izango da proposatutako helburua lortzea.

Ane Urkiolak ez ditzala gauzak nahastu eskatu dio. Berak, hondakinak nahastuta lurrean uzten diren poltsen gainean Alkateak esandakoari erantzun dio. Jarrera hori birziklatzearen aurka doa eta kalte egiten die bai 5. edukiontzia aldea daudenei eta bai atez ateko sistema defendatzen dutenei ere.

Aitor Madinak hartu du hitza eta batzuetan ohiturak aldatzea zaila dela esan du eta, horregatik, hasieran behintzat pedagogia pixkat egin beharko da.

Alkate jauna ados dagoela esan du eta ohitura horiek aldatzea zaila da batik bat birziklatzen ez duenarentzako. Azkenik, oraindik material desberdina jaso ez duen herritarrak aukera izango du abendura arte material horiek jasotzeko, udaletxearen atzealdeko bulegoan.

no se apostó por el 5º contenedor. Y lo que la gente también se da cuenta es que no es proporcional el despliegue de txintxilikarios para la fracción resto que queda. Pide al Sr. Alcalde que no haga acusaciones veladas pues sabe perfectamente que están por el reciclaje, por activa y por pasiva, y no apoyan las actitudes incívicas. En definitiva están a favor del reciclaje, del 5º contenedor y en contra de los txintxilikarios.

El Sr. Alcalde dice que prefiere hacer las valoraciones al final cuando se conozcan todos los datos sobre recogida y costes.

Igor Urrate comenta que el hecho de dejar las bolsas en el suelo, aunque no contuvieran los residuos mezclados, también sería en sí incívico, además de un mal ejemplo para los menores. Encima supone un coste añadido. Considera que los políticos deberían dar ejemplo y no alentar este tipo de actitudes. Como parece que todos están a favor del reciclaje y con buena voluntad se conseguirían las metas propuestas.

Ane Urkiola le pide que no mezcle las cosas pues ella ha respondido a lo dicho por el Sr. Alcalde con respecto a las bolsas que se dejan mezcladas en el suelo. Y esa actitud, que va en contra del reciclaje, perjudica tanto a quienes están a favor del 5º contenedor como a los que defienden el puerta a puerta.

Aitor Madina comenta que a veces es difícil cambiar las costumbres y que al principio igual habrá que hacer un poco de pedagogía.

El Sr. Alcalde está de acuerdo y comenta que sobre todo será más difícil para el que no reciclaba nada. Aprovecha para informar que hasta diciembre se podrán recoger todavía los diferentes materiales por quienes no lo hayan hecho, en el local de la trasera del Ayuntamiento.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2013/11/27



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

27/11/2013

Sagrario Etxabek hartu du hitza eta datorren abenduaren 3an Euskararen nazioarteko eguna ospatuko dela ekarri du gogora. Hori dela eta, egun horretan egingo diren ekintza desberdinen berri eman du eta urteko egun guztietan euskara erabiltzera animatu nahi ditu herritar guztiak.

Sagrario Etxabe informa sobre la próxima celebración, el día 3 de diciembre, del Día Internacional del Euskera, sobre las diferentes actividades que se llevarán a cabo y aprovecha para concienciar y animar en el uso del euskera todos los días.

Alkateak, arratsaldeko 21:15ak direnean, amaitutzat eman du bilkura eta aztertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezzen akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut.

El alcalde levanta la sesión, siendo las 21:15 horas, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta de todo lo cual, yo, el secretario, doy fe.

Akta hau 2013ko abenduaren 17an egindako bileran onartu zen:

bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.

baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak.

Este acta fue aprobada en la sesión del día 17 de diciembre de 2013:

en su integridad, sin ninguna objeción.

si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas.

Iñaki Gastañares Sánchez
Idazkaria



Kepa Urzelai Goitia
Alkatea